
socialistasalaveses.com
GASTEIZ
ZUREKIN
PSE-EE
PSOE

Zurekin eraikiko dugu erantzuten dakien Gasteiz.

Modernoa. Etorkizunarekin. Prestatua. Ausarta. Talentuduna. Feminista. Nazioartekoa. Sentikorra eta adeitsua. Green. Erakargarria eta abegitsua. Lehiakorra. Kirol eta kultur zalea.

Zure laguntzarekin, etorkizuneko Gasteiz izango dena antolatuko dugu. **Maider Etxebarria** naiz, PSE-EEko alkategaia. Eta lau urte hauetan, Gizartearen, Ekonomiaren Sustapenaren, Herritarren Segurtasunaren eta Kulturaren arloko udal arduradun naizen aldetik, Gasteiz berri bat diseinatzen lagundu dut.

Azalduko dizut nola.

Maider.echevarria
@metxebarria_vg
maideretxebarria.vg

socialistasalaveses.com

PSE-EE
PSOE



# Gizarte-zerbitzuak

**Sozialistek bultzada bat eman diegu udal gizarte-zerbitzuei baliabide eta programa berriak sortuz, Udalaren laguntza behar duten familiei eta pertsonei arreta emateko.**

**Urtero 32.000 gasteiztar baino gehiago babesten ditugu: adinekoak, pertsona kalteberak, haurrak, nerabeak, etab.**




## Adinekoak

San Martingo BIZAN zentroa ireki dugu, 4 etxebizitza komunitario eta 5 osasun-parke. Eguneko arretarako bi zerbitzu ere bultzatu ditugu -San Prudentzio egoitzan eta laster Errenazimendu plazan irekiko den beste bat- eta beste bat prestatzen ari gara Zaramagan, El Pilarreko BIZAN jantokiaz eta Florida parkean dagoen Adinekoen Informaziorako Bulegoaz gain.

## Familiak

Urtero 12 milioi euro inguru bideratzen ditugu gizarte-laguntzetara.

Pertsona kalteberenentzat Arkupeko jantoki soziala prestatu dugu, eta beste bat proiektatu dugu Erdi Aroko hirigunean, gizarteratzeko eta laneratzeko zentro batekin batera.

Emandako Gizarte Laguntzak:
**9 M€** (2018) | **12 M€** (2022)

Osasun Parkeen kop:
**9** (2018) | **12** (2022)

Adinekoentzako jantokietako plazen kop:
**608** (2018) | **688** (2022)

Eguneko Arreta Zerbitzuko plazen kop:
**131** (2018) | **173** (2022)

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko orduen kop:
**160.635** (2018) | **240.345** (2021)

ELZren onuradunen kop:
**1.970** (2018) | **2.878** (2021)

# Ekonomiaren sustapena

**Politikak EKINTZAK behar ditu. Eta une kritikoetan garrantzizkoa den horretan jardun eta buruarekin gobernatu behar da. Emaitza? Gasteizko Udalaren historiako kontratazio-zifra altuenak lortu ditugu. Hauek ez dira hitz soilak. Datuak dira. Jendearen premiei emandako ERANTZUNAK dira.**



17 milioi euro baino
gehiago enplegu-politiketarako agintaldi honetan.



14,5 milioi
Aurreko legealdia

17 milioi
Gure legealdia




Hau da,
% 17tik gorako igoera
izan da.

## Enplegua

17 milioi euro baino gehiago inbertitu dira enplegu-politika aktiboetan, tokiko lidergoari eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lortutako AKORDIOEI esker.
Azkena egindako akordioak logistikako prestakuntza-plan berritzaile bat abian jartzea eta 600 lanpostu sortzea ahalbidetuko du.

4,5 milioi euro bideratu dira tokiko ekonomiaren sarera eta horri esker lagundu ahal izan zaie enpresei, merkatariei, ekintzaileei eta autonomoei, oso une zailetan. Hiri eta ekonomia berdea sustatzeko laguntzak ere sortu ditugu.

# Udal administrazioa

**Udal eraikinetako CO2 isuriak 3.200 tona baino gehiago murrizteko plan bat jarri dugu martxan. Energia berriztagarrien erabilera % 15etik % 32ra bikoiztu dugu, energia-kontsumoa % 15era murriztea lortzeko.**





- Udal Eraikinen Eraginkortasun Energetikoaren lehen Dekalogoa aurkeztu dugu, Egibideko ikasleek eta BIZAN zentroetako erabiltzaileek sinatua.

Zibersegurtasuneko gastua 4 halako handitu dugu:




**86.000**
**euro 2021ean**

**356.000**
**euro 2022an**

## Eraldaketa digitala

2 milioi euro inbertitu ditugu Gasteizko eraldaketa digitala bizkortzeko. Gainera, milioi bat euro lortu ditugu Espainiako Gobernuak kudeatutako Europako funtsetatik, udal webgunearen bidez kudeaketak arintzeko.

- Zibersegurtasuneko inbertsioa handitu dugu.

## Herritarren partaidetza

Vitoria-Gasteiz Hobetuz programa bultzatu dugu. Programa horretan, herritarrek erabaki dezakete udal aurrekontuaren zati bat nora bideratu. Biztanleen 14 proposamen jarri ditugu martxan, 3 milioi eurotik gorako inbertsioarekin.

# Kultura

**Vitoria-Gasteizek kultur agenda oparoa du, lankidetza publiko/pribatuari esker. Sormen-industriak balioan jartzeaz gain, ekonomikoaren eragile direla defendatzen dugu. Horregatik babesten ditugu dagoeneko finkatuta dauden hiriko ekitaldi handiak eta ekimen berritzaileenak.**

## Principal Antzokia

Gure hiriko antzoki nagusia eraberritzeko proiekturik garrantzitsuena lizitatu dugu, erosotasunean irabaz dezan eta arte eszenikoen proposamen gehiago erakar ditzan.

- Hiriko ekitaldi handietan murgilduta: Azkena Rock Festival, Jazzaldia, FesTVal, Kaldearte, Andre Maria Zuriaren jaiak…
- Sektorea babestu dugu, Kultura Bizia bezalako proiektuekin.

## Hezkuntza

Hezkuntzaren arloan jolasleku berdinzaleagoak sustatu ditugu, non bidea egiten ari den natura.

- Txagorritxu eta Mariturriko haur-eskoletako jolastokiak birnaturalizatu ditugu, gune inklusiboak izan daitezen.

# Herritarren segurtasuna

**Udaltzaingoak 70 agente sartu ditu legegintzaldi honetan, Gasteiz euskal hiriburrurik seguruena eta delitu-indize txikiena duen Espainiako hiriburuetako bat izaten jarraitzeko.**

## Baliabide gehiago eta hobeagoak

Hasi dira José Erbina kaleko Udaltzaingoaren eraikin berria egiteko lanak, herritarrekin harreman zuzenagoa izateko. 7 patruila-auto elektriko eta beste 7 hibrido gehitu dizkiogu polizia-flotari, eta suhiltzaileetan autoeskailera-kamioi berri bat erosi dugu, bi autobonba-kamioi gehitzeko beharrezko urratsak emateaz gain.

PSE-EE
PSOE

GASTEIZ
# ZUREKIN


Arabako Alderdi Sozialista
Arka kalea 11, 1.a ezk.
01005 Vitoria-Gasteiz
**Tel.: 945 23 10 78**

socialistasalaveses.com


**Postontzi** soziala

Egin zure proposamenak hemen:
> buzonsocial@socialistas.net